



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA  
2016/11/29

## **Saldutako "bonodenda" bakotzeko batez besteko gastua "80 eurora" ailegetan da, Pradalesek esan dauenez**

Talde Mistoak egin deusan itaunari erantzunez, Imanol Pradales Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapenerako foru diputatuak, datorren zapatuan, abenduaren 3an, martxan jarri eta hilebetera, amaituko dan Bono Denda VII. Kanpainaren gaineko datuak eskini ditu Bizkaiko Batzar Nagusien aurrean egin dauen agerraldian. Aldundiko arduradunak azaldu dauenez, joan dan martitzenean amaitu ziran salgai jarritako 20.000 bonoak. "Bonodenda" bakotxak 40 euro balio ditu, eta bono bakotxagaz 50 euroko erosketak egin daitezke Bizkaian kanpainagaz bat egin daben 11.000 saltoki baino gehiagotan. Pradalesek esan dauenez, bono bakotxari jagokon batez besteko gastua "80 eurokoa" izango da, bale bakotxaren balioa bikoiztuz.

Bono Denda kanpaina 2012. urtean jarri zan martxan lurraldean. Gaur arte, martxan jarritako edizino guztietan – lau Gabonetan eta bi udabarrin– "130.000 bono" saldu dira Bizkaian, eta horrek 12.154.817 euroko gastua eragin dau 10 behargin baino gehiago ez dituen txikizkako saltokietan. Izan be, ekimena, "kontsumoa dinamizetako eta lurraldeko merkataritza txikiari laguntzeko" dago pentsauta, sektoreagaz "batera". 2015ean bakarrik, BEZaren zergaren bidez, Bizkaiko Foru Ogasunak, hasieran inbertidutakotik "300.000 euro" berreskuratu ebazan, Pradalesek azpimarratu dauenez.

Azkeneko kanpainatik jaso diran datuak kontuan izanda, gastuaren "%57a" ekipamendu pertsonalerako artikuluetan (erropak, osagaiak...) egin zan. Horren ostean, Bizkaiko onuradunek euren bonoak liburu-dendetan (%12,6) eta elikadura dendetan (%7) erabiltea erabagi eben. Baleen %3 inguru informatika eta elektronika eta jostailu dendetara eta ule-apaindegietara joan zan. Eta bonoen %2 inguru lurringintzako eta parafarmaziako artikulua edo altzariak erosteko erabili zan.

"Bonodenda" Bizkaiko eskualde "guztietan" dago, baina batez be biztanle gehiagokoetan. Hamar bonoetatik ia lau –%38– Bilboko establezimenduetan gastau zan. Horren ostean Ezkerraldea (%16), Nerbioi-Ibaizabal (%9), Durangaldea (%8,7), Lea Artibai (%8) eta Eskumaldea (%7,4) datoz. Gainerako baleak Busturialdean (%5), Enkarterrin (%5), Uribe Kostan (%1,4) eta Arratian (%1) gastau ziran.

Talde guztien eretziz "positiboa" da Bizkaiko merkataritza txikiari laguntzen jarraitzearen idea. Batzuek, EH Bilduk, besteak beste, "sarriago" egitea eskatu dabe eta, hurrengo edizinoetarako, bonoaren salmentak, erosleen errentegaz "zelanbaiteko erlazinoa" izateko aukerea aztertzea eskatu dau.

ONARTU EZ DIRAN PROPOSAMENAK



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Beste alde batetik, Bizkaiko Talde Popularrak (PP) arauz besteko proposamen bi aurkeztu ditu gaur Bizkaiko Batzar Nagusietako Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapenerako batzordean. Batzarretako EAJ-PNV eta PSE-EE taldeek ez ditue onartu proposamenak, eta, beraz, ez dira onetsi.

Lehenengoan, Batzarretako talde Popularrak, Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapenerako sailak, Kobetaserako bidean autokarabanentzako urteerea “ondo ikusteko moduan” seinaletea eskatu dau A-8 autobidean eta Hegoaldeko Saihesbide Metropolitanarrean, karabana zaleen alkarteak egin dauen eskaria kontuan izanda. EH Bildu, Podemos Bizkaia eta Talde Mistoa be idearen alde agertu dira.

Foru Gobernuak eusten daben talde bien eretziz, barriz, Jesús Isasi batzarkideak proponiduten eban seinaleztapen “bertikala” “ez da derrigorrezkoa” ahalmen handiko errepideetan, eta, gainera, lehendik be ohiko errepideko seinale asko dituen autobideak “saturau daikez”, gainerako erabiltzaileak nahastuz eta “errepideko segurtasuna murriztuz”, Jon Andoni Atutxa bozeroale jeltzaleak esan dauenez. Alternatiba moduan, seinale horreek BI 3736 foru errepidean jarteko aukerea aztertzea proponidu dau.

#### URTENBIDEEN PLANA

Arauz besteko beste proposamen baten bitartez, PP taldeak “urtenbideen plan” bat diseinetako eskatu dau, Bizkaiko foru errepide sareko bide batzuetan egon daitekezan ibilgailu-metaketak saihesteko. Isasik aldeko botoak gura ebazan, baina ez ditu lortu (EH Bildu, Podemos Bizkaia eta Talde Mistoa abstenidu egin dira) Aldundiari, Bilboko Udalari eta Eusko Jaurlaritzari, alkartzeko eta “ibilgailu erabiltzaileakazko komunikazioa aztertzeko eta hobekuntzak jarteko” eskatzeko.

Oraingoan be, EAJ-PNV eta PSE-EE taldeek atzera bota dabe popularren proposamena. Talde bien eretziz, ideak “eskumenen gaineko arazoa” sortuko leuke, Aldundiaren eginbearra errepideak eregitara mugatzen dalako, eta Eusko Jaurlaritza dalako zirkulazino eta trafikoko jarraibideak ezarten dituana. Dana dala, Mikel Bagan jeltzaleak esan dau administrazino biak –Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundia– beharrean dabilzala daborduko modu “koordinatuan”. Ibilgailu-metaketak edo istripuak gertatzen diranean “erabiltzaileak beste bide alternatiboetatik bideratzeko definidutako estrategia indarrean dago”.

Horren ostean, eztabaidea, A-8 autobidean dagozan informazino panelen erabilgarritasunera zuzendu da. “Ez da begiratu panel horreek emoten daben informazino egokia dan eta panel gehiago behar ete dan”, esan dau Jesús Isasik. “Istripuren bat gertatzen bada, informazino hori emon emoten da”, erantzun deutso Ignacio Jerónimo sozialistak. “Interesgarria izango litzateke panel gehiago behar ete dan baloretea”, eskatu dau EH Bilduko Zigor Isuskizak, eta eskaria egin deutse erakundeei, GPSan edo telefonia mobikorrean oinarritutako informazino sistema aztertu daien.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA  
29/11/2016

## **El gasto medio por cada "bonodenda" vendido alcanza los "80 euros", según Pradales**

Interpelado por el grupo Mixto, el diputado foral de Desarrollo Económico y Territorial, Imanol Pradales, ha ofrecido esta mañana en una comparecencia en las Juntas Generales de Bizkaia datos sobre la VII campaña Bono Denda que finalizará el próximo sábado, 3 de diciembre, un mes después de arrancar. El responsable foral ha explicado que el pasado martes se agotaron los 20.000 bonos puestos a la venta. Cada "bonodenda" tiene un precio de 40 euros y con él se pueden realizar compras por valor de 50 euros en más de 11.000 comercios adheridos de Bizkaia. Según Pradales, el gasto medio se sitúa en los "80 euros", duplicando así el valor de cada vale.

La campaña Bono Denda arrancó en el territorio en el año 2012. Hasta hoy, en las sucesivas ediciones puestas en marcha -cuatro en Navidad y dos en primavera- en Bizkaia se han vendido "130.000 bonos" que han generado un gasto de 12.154.817 euros en establecimientos minoristas que no superan los 10 empleados, ya que la iniciativa está pensada, de manera "conjunta" con el sector, "para dinamizar el consumo y apoyar al pequeño comercio del territorio". Solo en 2015, a través del impuesto del IVA, la Hacienda foral vizcaína recuperó "300.000 euros" de lo inicialmente invertido, ha destacado Pradales.

En base a los datos obtenidos de la última campaña, el "57%" del gasto se produjo en artículos de equipamiento personal (ropa, complementos...). Los beneficiarios vizcaínos prefirieron después usar los bonos en librerías (12,6%) y tiendas de alimentación (7%). En torno al 3% de los vales fueron a parar a tiendas de informática y electrónica, jugueterías, y peluquerías. Y cerca del 2% de los tickets se utilizaron para comprar artículos de perfumería, de parafarmacia o muebles.

El "bonodenda" tiene presencia en "todas" las comarcas de Bizkaia, aunque predomina en las más pobladas. Casi cuatro de cada diez bonos -el 38%- acabó en un establecimiento de Bilbao. Le sigue después la Margen Izquierda (16%), Nerbioi-Ibaizabal (9%), Durangaldea (8,7%), Lea Artibai (8%) y Eskuinaldea (7,4%). El resto de vales se utilizaron para adquirir productos o servicios en Busturialdea (5%), Enkarterri (5%), Uribe Kosta (1,4%) y Arratia (1%).

Todos los grupos han considerado "positiva" la idea de seguir apoyando al pequeño comercio de Bizkaia. Algunos como EH Bildu han pedido incluso que se lleve a cabo "en más ocasiones" y se estudie, en próximas ediciones, que su venta tenga "cierta relación" con la renta de sus compradores.

PROPOSICIONES RECHAZADAS



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Por otra parte, el grupo Popular Vizcaíno (PP) presentaba hoy en la comisión de Desarrollo Económico y Territorial del Parlamento de Bizkaia sendas proposiciones no de norma, las cuales han sido rechazadas por los grupos junteros de PNV y PSE-EE. En la primera, el grupo juntero Popular ha defendido que el departamento de Desarrollo Económico y Territorial señalizase en la Autopista A-8 y en la Variante Sur Metropolitana, “de forma visible”, la salida para las autocaravanas en dirección al aparcamiento autorizado de Kobetas, como así le ha solicitado la asociación de caravanistas. La idea ha sido apoyada también por EH Bildu, Podemos Bizkaia y grupo Mixto.

Los dos grupos que sustentan al Gobierno foral creen, en cambio, que la señalización “vertical” que proponía el juntero Jesús Isasi “no es obligatoria” en las vías de alta capacidad y puede “llegar a saturar” las autopistas, ya de por sí cargadas de señalización viaria convencional, confundiendo al resto de usuarios y provocando una “reducción de la seguridad viaria” según el portavoz jeltzale Jon Andoni Atutxa. Como alternativa, ha propuesto que se estudie la posibilidad de incorporar estas señales en la carretera foral BI 3736.

## PLAN DE VÍAS DE ESCAPE

A través de otra iniciativa no de norma, el PP ha pedido el diseño de un “plan de vías de escape” que se aplique en el caso de colapsos de las vías principales de la red foral de carreteras en el anillo de Bilbao. Isasi quería apoyos, que no ha conseguido (EH Bildu, Podemos Bizkaia y Mixto se han abstenido), para que se instase a la Diputación, Ayuntamiento de Bilbao y Gobierno Vasco, a reunirse con el fin de “estudiar y mejorar la comunicación con los usuarios de vehículos”.

De nuevo, PNV y PSE-EE han tumbado la propuesta popular. Ambos grupos entienden que la idea supone crear un “problema competencial” ya que la función de la Diputación se limita a la construcción de las vías y es el Gobierno vasco el competente para establecer las directrices de circulación y tráfico. En cualquier caso el jeltzale Mikel Bagan ha advertido que las dos administraciones –Gobierno Vasco y Diputación- trabajan ya de forma “coordinada”. “Existe una estrategia definida para dirigir a los usuarios por vías alternativas” cuando se producen atascos o accidentes, ha dicho.

El debate ha virado después sobre la utilidad de los distintos paneles informativos existentes en la A-8. “No se ha mirado de qué informan estos paneles y si se necesitan más”, ha espetado Jesús Isasi. “Si hay accidente, lo pone” le ha respondido el socialista Ignacio Jerónimo. “Sería interesante valorar si se necesitan más paneles”, ha pedido Zigor Isuskiza, de EH Bildu, quien ha animado a las instituciones a estudiar un sistema informativo basado en el GPS o en la telefonía móvil.